

ABE

Amara Berriko Egunkaria

34 zb.

2012ko urtarrilaren 25a

Haur danborrada



egileak:
Camilo, Carolina, Mikel, Mar.

a g u r r a

Kaixo lagunok,
Hemen gaude
Camilo, Mikel,
Mar eta Caroli-
na eta ABEa
oso interesga-
rria izango dela
uste dugu. Lan
handia egin
dugu eta
espero dugu
zuek irakurtzea.
Agur eta ondo
pasa.

Haur danborrada urtarrila-
ren 20an izan behar zuen,
baina euri asko egiten zue-
nez eskola gustiak uda-
letxera joan behar zute-
nean bertan behera utzi zen
eta hurrengo igandean, urr-
tarrilaren 22 an, ospatu zen.



Milaka errefuxiatu Hego Sudango mugako erasoetatik eraman dituzte

NBEk bi hilabete ditu 5.000tik gora la-
gun lekuz aldatzeko, euriteek hegoal-
derako errepideak itxi aurretik. Petroi-
loaren merkatua menderatzeko Suda-
nen eta Hego Sudanen arteko borro-
kek okerrera egin dute azken asteetan.
Bi herrialdeen arteko liskarrek eta tri-
buen erasoek arriskuan ipini dituzte
mugan bizi diren milaka errefuxiatuak.



a u r k i b i d e a

- 1.- portada: Haur danborrada eta Milaka errefuxiatu
- 2.- inkesta: Zein lagunekin joango zinateke bidaia bat egite-
ra?
- 3.-elkarrizketa: Andoni eta Paul.
- 4.-kontu kontari: Canción
- 5.- gu ere idazle:Hizki zopa
- 6.- lumaren kilima: Deskribapena
- 7.- saski naski: Hitzen kiniela



Txangoa Mirandaolara

Ostegunean, B ereduko Hiru taldeak Mirandaolara joango gara eguna pasatzera. Han burniola ikusi eta gero ekintza berezi batzuk burutuko ditugu.



I N K E S T A

Zein lagunekin joango zinateke bidai bat egitera?



Jon:
Anton eta Jinekin



Anton:
Jon.C eta Jinekin



Julian:
Aitor Ontoriarekin



Andoni:
Julia Vicenterekin



Aitor G.:
Mikel eta Alaiekin



Nora:
Eva eta Angela-
rekin



Esmeralda:
Carolina eta Eli-
rekin



Elizabeth:
:Carolina eta Es-
meraldarekin



Maider:
Mar-ekin



Olatz:
Carolinarekin

Inkestaren emaitza: Gehienak Carolinarekin nahi dute joan.

E L K A R R I Z K E T A

Andoniri



1.-Zeintzuk dira zure 5 lagunik hoberenak?
Paul, Camilo, Mikel, Christopher, Adrian.

2.- Zein da zuretzat abestirik hobereena?
Danza kuduro.

3.-Nora joango zinateke?
Hawaira.

4.-Nor da zure jokalaririk hobereena?
Messi.

5.-Zein da zuretzat talderik hobereena?
Real Sociedad.

6.- Zein da zuretzat janaririk hobereena?
Chuleta gutxi eginda gatzarekin

7.-Zein da zuretzat programarik gustokoena?
la que se avecina

8.-Nor da zuretzat nezaririk hobereena?
Julia vicente.

Pauli



1.-Zeintzuk dira zure 5 lagunik hoberenak?
Mikel, Pablo, Andoni, Camilo, Christopher.

2.-Zein da zuretzat pelikularik hobereena?
Misión imposible.

3.-Zein da zuretzat neskarik politena?
Julia Vicente.

4.-Zein da zuretzat janaririk hobereena?
Makarroiak

5.-Zein da zuretzat futbol talderik hobereena?
Real sociedad

6.-Zer gustatzen zaizu gehiago futbola edo sazkibaloia?
Futbola

7.-Nori emango zenioke muxu bat?
Julia Vicenteri

e g u r a l d i a

eguzkia



Temperatura:4-15°C.

Euria: Ez du euririk egingo.

Haizea: Hego haizea.

Presioa:1037 mb.

Gaurko prebisioa: Eguzkitsua.

ESAERA ZAHARRA: Urtarrila hotza, neguaren bihotza.

Canción

Cu-cú, cantaba la rana,
cu-cú, debajo del agua,
cu-cú, pasó un caballero,
cu-cú, con capa y sombrero,
cu-cú, pasó una señora
cu-cú, con traje de cola,
cu-cú, pasó un marinero,
cu-cú, vendiendo romero,
cu-cú, le pidió un ramito,
cu-cú, no se lo quiso dar,
cu-cú, se echo a llorar.




egileak: Paula Sanchez.

Gu ere idazle

2 . z i k l o k o l a n a k

Gurutzegrama



- 1- Oihanean bizi elen animali marraduna.
- 2- Lepoa oso luzea duen animalia.
- 3- estankean bizi den animalia.
- 4- oihaneko erregea.
- 5- oiloen zaintzailea.
- 6- Afrikako saltokari hoherena.

egilea: Josu Arrazola



Hizki zopa: Barazkiak

Hizki zopa honetan 7 barazki daude eaurkitzen dituzu.

T	Z	A	I	N	Z	U	R	I	A
K	I	U	G	P	F	T	U	O	Z
T	E	P	G	D	T	Q	H	D	E
A	B	O	U	F	K	M	I	M	U
R	B	G	H	L	N	A	H	D	A
R	F	O	A	I	A	T	U	M	R
A	R	K	T	P	G	E	L	T	I
L	E	I	O	H	T	A	I	L	O
I	T	T	P	I	P	E	R	R	A
D	A	E	X	K	T	R	U	H	K



egilea: Irati Quiles

Deskribapena

**Metaforak
Adjetiboak.**

Deskribatuko dudan pertsona atsegina eta Alaia da. Aurpegi borobila dauka ile iluna eta betaurrekoa ditu. Askotan motots batekin etortzen da eskolara eta belarritakoak ere ditu jarrita .

**Begi kolorea beltza da eta sudur motza du
Ezpain beteak eta txikiak ditu**

**Pertsona hau oso langilea da eta lagun ona da.
Arropa oso ongi jartzen daki.
Eskuak finak ditu.
Nere ustez matematiketan oso ona da eta inglesean ere, baina Taniarekin ingelesa egiten du.**

**Pertsona honek ordulari bat eramaten du batzuetan, pulserak ere .
bere janari gustokoena makarroiak dira, nereak ere.
Idaztean bere letra txikia eta ona da, nerea berriz handia eta txarra.
Bere estutxea urdina da ardi mozorrotuekin eta nere estutxea ez da berbera.
Pinoa egiten badaki eta nik ere bai.
Nintendo 3DS bat dauka eta plasma telebista bat ere, nik ez daukat nintendo 3DSrik ezta telebista plasmatikorik.**

Badakizu zein den nik deskribatu dudan pertsona?

Hitzen Kiniela (Oier Hernandez)

Hurrengo hitz zerredan sinonimoak, antonimoak eta zerrikusirik ez duten hitzak aurkituko dituzu. Sinonimoei-x-, antonimoe-2- eta zerikusia ez dutene-1- jarri behar dizkiezu. Arretaz irakurri. Zalantzak badituzu hiztegia erabili.

	1	X	2
1. Gosetu - hase			x
2. Ikaratu - beldurtu		x	
3. Jaio - hil			x
4. Jeiki - etzan			x
5. Zimurtu - edan	x		
6. Goibeldu - tristetu		x	
7. Alaitu - poztu		x	
8. Makaldu - moteldu		x	
9. Makurtu - jo	x		
10. Gogor - bigun			x
11. Busti - lehortu			x
12. Astun - pixu		x	
13. Estu - mehe		x	
14. Txukun - narratx			x
15. Gozo - mikatz			x
16. Garbi - garden		x	
17. Ugari - asko		x	
18. Jaso - bota			x
19. Gordin - zikin		x	
20. Ustel - lodi	x		



**ABE hitza aurkitu
Portadakoak ez du balio**

ODD ONE OUT

- A Wise — apple — pear — banana
- B happy — pretty — wise — weak
- C cat — bear — fish — hat
- D doctor — strong — actor — ticher

